

udalerrri
euskaldunetarako

URGENTZIAZKO NEURRIAK



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



UEMA

www.uema.eus

koordinazioa@uema.eus

t.me/UEMAeus



(CC BY-SA 4.0)

Lan hau Creative Commons
Aitortu-PartekatuBerdin 4.0
Nazioartekoa lizentziapean
zabaltzen da.

Lehen argitaraldia:

Argitaratzailea:

Azala eta maketazioa:

2026ko maiatza

Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea

UEMA

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| ATARIKOA | 4 |
| URGENTZIAZKO NEURRIAK | |
| • 1. neurria: zerbitzu publiko guztiak euskaraz bermatzea | 6 |
| • 2. neurria: euskarazko hizkuntza paisaia bermatzea | 7 |
| • 3. neurria: plangintzek, proiektuek eta askotariko egitasmoek euskarari eragin kaltegarririk ez eragiteko neurriak hartzea | 8 |
| • 4. neurria: ostalaritzan langileak euskalduntzeko neurriak hartzea | 9 |
| • 5. neurria: euskalduntze-alfabetatzea doakoa bermatzea, ratioak jaitzita | 10 |
| • 6. neurria: etorri berriei begirako murgiltze-neurriak ezartzea | 11 |
| • 7. neurria: haur eta gazte etorri berrientzako murgiltze ereduak ezartzea | 12 |
| • 8. neurria: haur eta gazteen ikasketa prozesu osoa ahalik eta gune euskaldunenetan ahalbidetzeko neurriak hartzea | 13 |
| • 9. neurria: familia zaugarrietako haurrei aisialdia bermatzea | 14 |
| • 10. neurria: udaletako euskarazko funtzionamendua bermatzea | 15 |

Atarikoa

Arnasguneek hizkuntza gutxituen biziberritzean duten garrantziaz sarri hitz egin da Mikel Zalbidek kontzeptua bera euskarara ekarri zuenetik. Lehenago, UEMA sortu zutenek ere lurgune euskaldunak euskarak bizirik irauteko duen garrantziaz ohartuta ekin zioten mankomunitatearen ibilbideari. Harrezkero, urte askoan egindako lanaren ondotik, gaur egun adostasun handia dago arnasguneek indarberitze prozesuan duten garrantziaren inguruan, bai euskalgintza sozialean, bai akademian, bai euskararen alde ari diren erakunde publikoetan. Horren erakusle da 2024an Eusko Jaurjaritzak, Nafarroako Gobernuak eta UEMAK adostutako “Euskararen arnasguneak: definizioaren eta erronken berrikuspena” dokumentua.

Kezkatzekoak dira euskara indartsuen dagoen lurgunean antzematen diren joerak. Ez da oraingo kontua udalerririk euskaldunenetan adierazle soziolinguistiko nagusiak atzeraka hasi izana, baina urteek aurrera egin ahala, egoera kezkagarri batera iritsi gara, zinez. Adierazle nagusietan atzera egiteaz gain, gun e horietako hiztunen tipologia ere asko aldatu da. Azken batean, nazioarteko joera orokorrekin bat, bizi ereduaren bilakaerak, bilakaera demografikoak eta globalizazioaren ondorio zuzenek arnasguneak desagertzeko bidean jarri dituzte. Horri aurre egingo dion erantzun sendo bat mamitu nahiak bultzatu zuen UEMA otsailean Lurralde Estrategia Euskararentzat proposamena aurkeztera.

UEMAk, 121 udalerrri euskaldun biltzen dituen erakunde publikoa den heinean, dagokion arduratik eta eremu euskaldunena gure hizkuntzarentzat giltzarria dela jakinda egin zuen proposamena. Ekarpen hori bere bidea egiten ari da. Proposamen horrek hizkuntza politikaren norabidea aldatzea eskatzen du, eta bide horretan adostasunak bilatzeko lanean ari gara orain, baina Siadecok 2025ean egindako proiektio demolinguistikoaren ikerketak egoeraren larritasuna agerian utzi digu. Euskararentzat hain garrantzitsua den eremua galtzeko arrisku bizian gaude, eta ikerketek diotena egunero ikusten dugu gainera gure udalerrietan; horregatik da beharrezkoa berehalakoan neurri zorrotzak hartzea.

UEMAk Esmatu dinamika abiatu zuen apirilean, eta dinamika horren baitan UEMAKo udalek konpromiso eta neurri zehatzak hartuko dituzte aurrerantzean ere, euren jarduna estrategikoa delako arnasguneak eta udalerrri euskaldunak trinkotzeko eta zabaltzeko.

Ordea, dokumentu honetan udalerriez gairdiko erakundeen esku leudekeen urgentziazko neurriak jaso ditu UEMAK, udalerrri euskaldunei eusteko ezinbestekoak izango diren 10 neurri, administrazio publikoek eta parlamentuek eremu horietarako epe motzean hartzeko modukoak. Neurri horiek hartzea ezinbestekoa izango da arnasguneak ez desagertzeko, eta oso urrats garrantzitsua Euskal Herri osoa euskalduntzen joateko, gun e hauek motore eta eredu izan behar direlako gainerako eremuentzat.


udalerri
euskaldunetarako

urgentziako neurriak

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta foru aldundiek udalerrri euskaldunetan ematen dituzten zerbitzu publiko guztiak euskaraz eskaintzen direla bermatzea

Osakidetza, Osasunbidea, Ertzaintza, Foru Polizia, epaitegiak, kirola, kultura, KZguneak, Lanbide, Nafar Lansare...

Urteak dira erakunde horiek herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko betebeharra dutela, eta horretan urratsak emateko plangintzak martxan dituzte gehienek. Gaur-gaurkoz, ordea, oraindik ez dira zerbitzu horiek beti euskaraz bermatzen, ezta euskararen arnaguneetan ere. Erakunde horien erreferentzialtasuna handia da, eta ematen dituzten oinarriko zerbitzuen garrantzia aintzat hartuta, arnaguneen atzerakada oztopatzeko neurri bereziak har ditzatela eskatzen diegu zerbitzu emaile diren administrazioei.



1



2

Udalerri euskaldunetan hizkuntza paisaia euskaraz izateko betebeharra ezartzea

Udalerri euskaldunetan dauden zerbitzuetan barruko eta kanpoko errotuluak euskaraz egoteko betebeharr juridikoa ezarri behar da. Ereñu horien irudia euskarak izan behar du. Legez, betebeharr horiek ezartzeko udalek erabiltzen dituzten ordenantzen legezketasuna bermatu behar dute bi goberñuek, eta ordenantza egokiak onartzeko betebeharra izan behar dute udalek.



Udalerrri euskaldunetan garatu beharreko planek, proiektuek eta askotariko egitasmoek euskarari eragin kaltegarririk ez eragiteko neurriak hartzea

Euskarari ez diote soilik hizkuntza politikan hartzen diren erabakiek eragiten, beste arlo askotan hartutako neurriek gehiago eragiten diote askotan (hirigintza arloa, ekonomia arloa...).

Euskal Autonomia Erkidegoko legedian urrats garrantzitsua eman zen Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko beharra ezarri zenean, baina ebaluazio horiek egingo direla eta ebaluazioen bidez onartzen diren neurriak beteko direla bermatu behar da, betetzen ez den kasuetarako neurriak betearazteko araudi egokia antolatuta. Ebaluazio horiek, gainera, ez dituzte udalek bakarrik egin behar, udalez gaindiko erakundeek ere egin behar dituzte, eta neurri zuzentzaile egokiak hartu, proiektuen sustatzaileak diren heinean. Nafarroan ere ebaluazioak egiteko betebeharra txertatu beharko litzateke lehenbailehen antolamendu juridikoan.

3



4

Ostalaritzako langileak euskalduntzeko liberazio dinamika martxan jartzea

Gainontzeko herrietan bezala, udalerrri euskaldunetan ere ostalaritza zerbitzuan aritzeko langile euskaldunak kontratatzeko zailtasunak daude gaur egun, eta horrek udalerrri euskaldunetan eta bereziki arnasguneetan beherakada eragiten du euskararen erabileran.

Horri konponbide azkar bat emateko, eremu horietan ari diren eta ariko diren langile guztiak euskalduntzeko neurri egingarriak eta eraginkorrak jarri behar dira martxan. Hala nola, ostalaritzako egungo eta etorkizuneko langileei lanean euskaraz ikasteko orduak eskainita, ikasketa prozesuak errazteko baliabide pedagogiko egokiak bermatuta, eta ikasteko betebeharra ezarrita. Euskara ikastea lanerako tresna izateaz gain, komunitatearen parte izan eta harreman sareetan txertatzeko lanabes izango da, lanean ari direnei eta ariko direnei euskara ikasteko orduak eskainita eta zerbitzua euskaraz emateko betebeharra ezarrita.



Euskalduntze-alfabetatze ratioak jaistera eta doakotasuna bermatzea maila guztietan

Udalerri euskaldunek eta arnasmonek euskara azkarrago ikasteko aukera egokia eskaintzen dute; kontrara, euskaraz ez dakiten herritarrek inpaktu handiagoa dute hizkuntzaren erabileran, udalerri horiek zaugarriagoak direlako hizkuntza aldaketan aurrean. Beraz, gobernuek lehenetsuz eremu hauetako euskalduntzea doakoa izango dela bermatu behar dute.

Horretaz gain, udalerri txikiak dira askotan euskararen arnasmoneak, eta gaur egun euskalduntze-alfabetatze taldeak sortzeko eskatzen diren ratioen eraginez, euskara ikasteko prest dauden herritarrek talderik gabe geratzen dira askotan, edo bestela udalerritik atera behar dira euskara ikastera. Egoera horrek desberdintasunak areagotzen ditu herritar guztiek hizkuntza ikasteko duten eskubidea baldintzatzen du. Beraz, euskalduntzea azkartzeko, eremu hauetarako ratioak jaitxi beharko lirateke. Garrantzitsua da eskaintza tokian tokiko komunitateari errotutakoa izatea, ikasleek hizkuntza-komunitatean txertatzeko bidea izan dezaten.



5



6

Helduen hezkuntzan euskara ardatz gisa ezartzea, herritar etorri berriei begirako murgiltze-neurrietan

Gaur egun, helduen hezkuntzara gerturatzeko diren etorri berriei gaztelania irakasten zaie aurrena, baita udalerrri euskaldunetan eta arnasmuneetan ere. Horren bidez, biztanle etorri berri horiei gaztelania behar beharrezkoa dela transmititzen zaie, nahiz eta euskaraz bizitzea arau soziala den udalerrietan euskara behar-beharrezkoa den herrian egoki integratzeko. Hala, integrazioarako bidean euskara eskaini behar da herritar etorri berriak herrian eta hitzun-komunitatean modu duin eta eraginkorrean parte har dezaten. Hasiera-hasieratik, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak euskarazko murgiltze-neurriak ezarri behar dituzte helduen hezkuntzan.



Haur eta gazte etorri berriak euskalduntzeko murgiltze-ereduak abiatzea

Hezkuntza sisteman ikasle etorri berrien euskara gaitasuna garatzeko indarrean dauden gaur egungo programak eta baliabideak ez dira aski, ezta udalerrri euskaldunetan ere. Udalerrri euskaldunek haur eta gazte horiei euskara gaitasun egokia lortzeko benetako aukerak eskaintzen dizkiete epe laburrean, baina horretarako ezinbestekoa da murgiltze-eredua ardatz bilakatzea eta haur eta gazte euskaldunekin harreman jarraituak bilatzea (beti ere euskara gailentzeko neurriak zainduta), dagokion Hezkuntza Sailak behar bezala planifikatuta.



7



Udalerri euskaldunetako haur eta gaztetxoen euskararen erabilera babesteko neurriak hartzea, haien ikasketa-ibilbide osoan zehar

Arnasgune gehienetako eta udalerri euskaldun txikienetako ikasleek ez dute beren ikasketa-ibilbide guztia herrian bertan egiteko aukerarik izaten. Maiz, haur eta gazte horiek udalerri erdaldunagoetara joaten dira ikasketa-ibilbidearekin jarraitzera, eta askotan, gainera, traktore lana egin dezaten talde ezberdinetan banatzen dituzte. Ikasle kopuru txikia izan ohi direnez, traktore lana egin beharrean euskarazko ohitura zuten ikasle horiek erdaldundu egiten dira, sarri, eta galera handia da hori euskararentzat. Horregatik, hori ekiditeko bideak aztertu beharko lituzkete hezkuntza sailek: ikasle horien erabilera babesteko sistemak bermatu, ikasleok gune trinkoan mantentzeko aukerak aztertu... Ikasle horiek euskararen atzera ez egitea ahalik eta modu eraginkorrean bermatuko duten neurriak hartu behar dituzte hezkuntza sailek berandu baino lehen.



8



Familia zaugarrietako haurrak euskarazko aisialdian txertatzeko neurriak hartzea

Askotan, familia zaugarrietako hurrek ez dute nahikoa baliabide ekonomiko izaten udalerri euskaldunetan euskaraz antolatzen den aisialdian parte hartzeko, eta haur eta gazte horientzat estrategikoa da aisialdia, besteak beste, euskara gaitasuna hobetzeko, euskararekiko atxikimenduari handitzeko, ongizaterako eta komunitateko loturak eraikitzeko.

Haur eta gazte guztiek, beren egoera edozein izanda ere, aisialdi euskaldunean parte hartzeko benetako aukera izan behar dute; gune horiek bizipen positibo eta esanguratsuen bidez euskararekiko eta komunitatearekiko lotura sendotzea ahalbidetzen dute eta. Hori bermatzeko, aldundiek eta gobernuek behar bezainbesteko bitartekoak eman behar dizkiete udalerriei.



9



Udal langile guztiak euskaldunak izateko eta udalen euskarazko funtzionamendua bermatzeko neurri juridikoak hartzea

Urte asko dira UEMAko udalak euskaraz funtzionatzeko ahalegin izugarria egiten ari direla, herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuta. Gaur egun, ordea, epaitegietatik etengabe datozen sententzien ondorioz, atzera egiteko arriskua handia da.

Euskaraz ez dakiten langileek euskarazko funtzionamendua oztopatzen dute. Beraz, udalerrri euskaldunetako udalek euskaraz funtzionatu dezaten, ezinbestekoa da Nafarroako eta EAEko parlamentuek dagozkien legeak aldatzea.



10





udalERRI
euskaldunetarako
**URGENTZIAZKO
NEURRIAK**



2026KO MAIATZA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA